

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuko Jardunbide Egokien eta Ustelkeriaren Aurkako koordinatzaile arduraduna izendatu da

Iulen Urbiola Loiarte, Zuzenbidean lizentziaduna eta orain arte Baztango Udaleko idazkaria, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuan hasi da lanean

Lunes, 09 de noviembre de 2015

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari M^a José Beaumont-ek Iulen Urbiola Loiarte izendatu du Nafarroako Gobernuko Jardunbide Egokien eta Ustelkeriaren Aurkako koordinatzaile arduradun.

Gogoratuko denez, Foru Gobernuak [iragan irailean erabaki](#) zuen Jardunbide

Egokien eta Ustelkeriaren Aurkako Bulego hori sortzeko prozesua hastea, eta foru-lege batek arautu beharko du. Arau hori prestatzen den bitartean, Gobernuak Beaumont kontseilariari mandatu bat eman zion: administrazioko unitate bat sortzea, eta zeregin horretarako bakarrik lan egingo duen koordinatzaile bat izendatzea.

Iulen Urbiola Loiarteren eginkizunak (Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren mende izango da organikoki) honako hauek izango dira: Departamentu guztiekin koordinatzea Jardunbide Egokien eta Ustelkeriaren Aurkako Bulegoa ezartzeko, legealdi honetarako [Programa Akordio](#)an jasota dagoena; etika-kode bat landu aurretiko lanak sustatzea; eta aurreko Gobernuek zerbitzu publikoak emateko Administrazioakoak ez diren pertsoneri edo enpresei egindako kudeaketa nahiz kontratazioko aginduak berrikustea.

Iulen Urbiola Loiarte gaur hasi da Nafarroako Gobernuan lan egiten. Zuzenbidean lizentziaduna da, eta orain arte Baztango Udalean idazkari aritu da.



Nafarroako Jauregia.